

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Hasierako onespena ematea honako hauek direla eta ordaindu beharreko tasak arautzen dituzten zerga ordenantzak aldatzeari: ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzua; udal erabilera publikoko lursailak mahaiekin eta aulkiekin okupatzea; hiri hondakin solidoak batu, tratatu eta deuseztatzea

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 7an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerga ordenantza hauen aldaketari:

– Ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza.

– Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza, honako epigrafea, hain zuzen: VII. Udal erabilera publikoko lursailak mahai, aulki, taula eta antzeko elementuekin okupatzea, irabazi asmoz.

– Hiri hondakin solidoak batu, tratatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.

Jendaurrean jartzen da interesdunek aukera izan dezaten espedienteaz aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurreko epea igarotakoan.

Dulantzi, 2020ko ekainaren 18a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA